

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Zaldibia

Aurkibidea

Udalerria: Zaldibia

Sarrera



Gipuzkoako hego-ekialdean eta Goierriko eskualdean dagoen udalerria da. Aralarko mendilerroa herriko mugakide naturala da, eta bertan hiru barrendegi edo enklabe ditu: Martxabaleta, Matxitxane eta Atxuripea. Iparraldean Arama eta Gaintza, hegoaldean Aralarko mendilerroa eta Ataun, ekialdean Abaltzisketa eta Aralar, mendebaldean Ordizia, Lazkao eta berriz ere Ataun mugakide ditu. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak:** 1.519
- **Euskaldunak:** %87,1

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **23**
- Zintak: **26**
- Pasarteak: **227**
- Transkribatutakoak: **4**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **205**

Proiektuak

- 101L - Herriz herri
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Gazte gara gazte
- Goierri Telebista
- Hikagin
- Ordiziako ahotsak
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen

Hizlariak

Jose Luis Azurmendi Ezeiza (1916)

Zaldibiako Unanobieta baserrian jaio zen. Gurasoak zaldibiarrek zituen eta sei senide ziren etxean. Umetan ez zen eskolara joan, baserrian ibiltzen zen hara eta hona ahal zuenean lagunduz. 16 urte zituela Beasaingo CAFen hasi zen lanean eta bertan jardun zuen erretiratu zen arte.



Dominika Eskisabel Urbiztondo (1918)

Dominka Eskisabel Zaldibian jaio zen 1918an. Etxean 6 senide ziren. 17 urte zituela gartzelan sartu zuten amarekin eta ahizparekin, dirudienez gorriei laguntzearren. Eskolara oso gutxi joan zen. Gainera gazteleraz hitz egiten zuten eta ez zuen ezer ulertzen. Arratsaldetan neskame joaten zen.

Larraitz Garmendiak grabazio bat egin zion fakultaterako. Gaztetako kontuak kontatzen ditu.

Joxe Antonio Etxabe Konporta

Zalbidian jaioa, artzain izan da bizi guztian. Artzainen bizimoduaren gaineko hainbat kontakizun kontatzen ditu.

Jose Luis Etxeberria Xapre (1957)

Zaldibiko Saturdi auzokoa. Auzoko festetan Martin trikitilaria ezagutu eta 18 urterekin soinu txikia jotzen ikasten hasi zen harekin. Pieza batzuk ikasi orduko atera zen plazara eta urte luzez plazarik plaza ibili da soinua jotzen. 2024an, jada plazetan jotzeari utzita zegoela, [omenaldia egin zioten Azpeitian, San Josetako 34. Trikiti Jaialdian](#).



Antonio Etxeberria Sukia (1926)

Zaldibian jaioa, Larraitz Garmendiak grabazio bat egin zion fakultaterako. Gaztetako kontuak kontatzen ditu.

Patxi Garmendia Garmendia (1923)



Patxi Zaldibiako Ursuerreka auzoko Ursugoena baserrian jaio zen. Aita zuen bertakoa; ama, berriz, Santa Marinako Zaloeta baserrikoa. Zaldibian ibili zen eskolan hamabi urte zituen arte; eta, ondoren, Tolosara joan zen fraideetan ikastera. Bertan zela, gerra heldu, eta Zaldibiara bueltatu zen baserriko lanetan aritzera. Soldaduskara joan baino urtebete lehenago, Patxi Donostiara joan zen zizelkatzaile-ofizioa ikastera. Soldaduska amaitu zuenean, Zaldibiara bueltatu zen eta Ordizian altzari-lantegi bat hartu zuen bazkide batekin batera. Hogeita hemezortzi urterekin ezkondu zen eta bi seme izan zituen bere emaztearekin batera.

Aitziber Garmendia Mendizabal (1982)



Zaldibian jaioa, guraso biak bertakoak ditu. Bi ahizpatan zaharrena. Ume-umetatik izan du antzerkirako grifia. 13 urterekin Beasaingo antzerki eskolan hasi zen, eta 15 urterekin aktore ikasketak egiten Donostian, TAEn. Zuzenbidea ere ikasi zuen, baina ez du horretan lanik egin. 18 urterekin Tantaka antzerki taldearekin hasi zen lanean eta 19 urterekin EiTb-n, "Martin" teleailean. Handik hona hamaika lanetan ibili da antzerkian, telebistan zein zineman. Aktore eta umorista ezaguna da Euskal Herrian. Aktore moduan ez ezik, gidoilari lanetan eta aurkezle moduan ere jardun du. Bere ibilbideari buruzko elkarrizketa egin diogu Aitziberri, antzerkigintzaz eta bizitzaz. [Bideo hau](#) osatu dugu bere testigantza batzuekin.

Trinidad Imaz Manzisidor (1927)

Zaldibiako Herreri etxean jaio zen. Gurasoak zalbiarrak zituen eta zazpi senide ziren etxean. Zaldibiako eskolan ibili zen 12 urte bete zituen arte, orduan bizilagunei permanenteak egiteari ekin zion etxean. 18 urterekin, ile-apaindegia ireki zuen Ordizian eta bertan egin zuen lan 40 urtera arte, ile-apaindegia zuen etxebizitza bota eta altzari-lantegi batean lanean hasi zen arte.

Patxi Iraola Garmendia (1933)

1933an jaio zen Zaldibiako Olei baserrian, aita bertakoa eta ama lartzetakoa zituen; 8 anai-arreba ziren sendian. Eskolan Zaldibian ibili zen 12 urtera arte. 58tik 61era CAF lantegian aritu zen lanean, krisia iritsi eta etxera bueltatu beharra suertatu zitzaion arte. Baserriko bizimodua izan du beti. 6 urte zituela entzun zuen lehendabizikoz aita bertsotan Zaldibiako Deposituetako tabernan eta gerora bera hasi zen. Txapelketa batzuetan parte hartu izan du: 66an Ordizian Txapelketa Nagusirako kanporaketan, esaterako.

Maria Fermina Irastorza Etxabe (1924)

1924an jaio zen Zaldibiako Aierdi baserrian, aita bertakoa eta ama Konporta baserrikoa zituen(hau ere Zaldibiakoa); bost anai-arreba zituen. Eskolan Zaldibian ibili zen eta baita josten ikasten ere. Baserriko bizimodua izan du beti. 28 urterekin ezkondu zen Olalde baserrira eta bertan egin zuen bizimodua.

Pakita Irastorza Etxeberria (1941)

"Martin-arotzenean" jaioa, gero Zubi-ondo bezala ezagunagoa. Guraso biak Zaldibiakoak zituen, ama Okobio baserrikoa. Lau anai-arrebetan hirugarrena izan zen Pakita. Aitak aroztegia zeukan, eta soinu jotzailea ere bazen. Taberna zuten etxean, eta umetatik hasi zen tabernan lanean, amarekin. Gustukoa zuen eta 13 urtetatik aurrera bera zen barrako enkargatua. Herriko eskolan ibili zen, eta kontabilitatea ere ikasi zuen. Josten ikastera ere joan zen, Donostiara; puntua egitea gustatzen zitzaion. Ezkondu zenean, tabernako lana utzi zuen, baina haindik urte batzuetara, umeak koskortzen hasi zirenean, Illati taberna hartu zuen. Bertan egin zuen lana, erretiroa hartu arte.



Antonia Iztueta Jauregi (1931-2017)

Zaldibiako Bidasola baserrian jaio zen 1931n. Ama bertakoa eta aita Lazkaomendikoa zituen; eta 13 anai-arrebatan hirugarrena zen bera. Zaldibian ibili zen eskolan, eta 11 urterekin Altzako baserri batera joan zen neskame; gerora, Sukia gotzainaren etxean eta CAF lantegiko nagusiarenean egon zen. 19 urterekin, anaia bat gerrara joan zitzaion, eta etxera bueltatu behar izan zuen. Baserriko bizimodua izan du beti. 20 urterekin ezkondu eta Nazabal-enea etxea egin zuten, bertan bizi izan zen.



Saroi Jauregi Aiestaran (1978)



Zaldibian jaioa, familia euskaltzale eta ateo batean. Herriko eskolan ikasi ondoren, Ordiziako institutura joan zen. Ondoren, Euskal Filologia ikasketak egin zituen Donostian. Bertso gai-jartzaile lanetan jarduteaz gainera, zuzentzailea eta itzultzailea da Elhuyarren. Hamar urte igaro zituen Zarautzen bizitzen. Zaldibian, hainbat herri ekimenetan hartzen du parte (mendi elkarte, pilota eskola...). Hitanoari buruzko elkarrizketa egin diogu, Aloña Jauregi lehengusuarekin batera.

Aloña Jauregi Irastorza (1980)



Zaldibian jaioa, familia euskaltzale eta ateo batean. Oinarrizko ikasketak egin ostean (herriko eskolan eta Ordiziako institutuan), arotz ikasketak egin zituen. Horretan egin zuen lan urte batzuetan, baina azkenaldian ikus-entzunezkoen munduan dabil. "*Aralar, mundua leku den lurra*" eta "*Hizkuntzak erraia*" dokumentalen egileetako bat da. Hitanoari buruzko elkarrizketa egin genion, Saroi Jauregi lehengusuarekin batera. Bere bikotea emakumezkoa da, eta LGBT kolektiboari buruz ere hitz egin genuen.

Katrin Lizarralde Nazabal (1992)



Ama Zaldibiakoa du, aita donostiarra. Zaldibiako ikastolan egin zituen lehen ikasketak, eta gero Ordizian (tartean, Donostian ere egin zuen ikasturte bat). Sukaldaritza ikasketak ere egin zituen. Une honetan taberna batean egin du lana. Berdintasun eta aniztasun zinegotzi kargua hartu berritan elkarrizketatu dugu. LGBT kolektiboa, aniztasuna, herri nortasuna, globalizazioa... hainbat gai izan ditugu hizpide. Bere bikotea emakumezkoa da eta alaba bat daukate. Bere ama, Anttoni Nazabal, ere elkarrizketatu genuen.

Jexux Mendizabal Amundarain *Kaxkagorri* (1926)



Txamarretxe auzoko Kanpaindegi etxean jaioa; "Kaxkagorrinekoak" esaten diete, aitonarengatik datorren ezizena. Aita Beasaindik etorria zen eta ama Lazkao-etxekoa. Aita, aitona bezalaxe, artzaina zen, eta Jexux mutikotatik hasi zen artzaintzan. Zazpi senidetatik hirugarrena zen Jexux (bat umetan hil zen). Gutxi joan zen eskolara, aitari laguntzen egoten zelako. Neguan Beasainen edo Olabarrian egoten ziren aldiekin eta udan, berriz, Oiduiako txabolan. Aita hil zenean, Eulogio anaiarekin batera jarraitu zuen artzain lanetan (Maria arreba ere beraiekin egoten zen neguan) eta azken urteetan bakarrik ere bai, Oiduin... Gazta egiten, haria egiten... naturarekin bat eginda. Pakita arrebarekin batera elkarriketatu genuen, haren etxean.

Pakita Mendizabal Amundarain *Kaxkagorri* (1936)



Txamarretxe auzoko Kanpaindegi etxean jaioa; "Kaxkagorrinekoak" esaten diete, aitonarengatik datorren ezizena. Aita Beasaindik etorria zen eta ama Lazkao-etxekoa. Aita, aitona bezalaxe, artzaina zen; amak gazta saltzen zuen Ordiziako azokan. Zazpi senidetatik gazteena zen Pakita (bat umetan hil zen). 13 urte arte herriko eskolan ibili zen, eta ondoren umezain eta neskame, Zaldibiako familia batean: errotako lanak egitea ere egokitu zitzaion. 18 urterekin Beasainera joan zen neskame eta handik Donostiara, familia berarekin. 27 urtera arte egon zen han; ondoren Zaldibiara ezkondu zen. Jexux anaiarekin batera egin diogu elkarriketa.

Luzia Nazabal Amundarain (1924)



Luzia Zaldibiako Zelaieder baserrian jaio zen. Aita zuen bertakoa, ama, berriz, Lazkaoetxeko jaioa. Umetan herriko eskolan ibili zen, baina gutxitan joaten zen, etxean beti baitzen lanen bat egiteko. Doktrinara, ordea, kale egin gabe joaten zen, bere gurasoek berebiziko garrantzia ematen baitzioten. Gaztetan neskame ibili zen: Donostian bi urtez eta Tolosan urte eta erdiz. 23 urte zituela ezkondu eta Ormaiztegiara joan zen bizi izatera, bere senarrak lan egiten zuen herrira. Bertan lau seme-alaba izan zituen.

Anttoni Nazabal Iztueta (1956)



Txamarretxe auzoan jaioa, guraso biak Zaldibiakoak zituen eta biak baserritarrak (ama Biosola baserrikoa). Aitak Beasainen egiten zuen lana, CAFen. Sei senidetan hirugarrena izan zen Anttoni. Herriko eskolan ibili zen eta ondoren Ordiziara joan zen institutura; ikasle garaian, talde komunista troskistan hasi zen militatzen, modu klandestinoan, eta kartzelan ere egon zen. Magisteritza ikasi zuen, Republica Dominicanan, eta ondoren irakasle moduan aritu da erretiroa hartu arte: urte askoan Legorretako ikastolan eta azken urteetan Zaldibian bertan. Zinegotzi ere izan da herrian eta militatzen jarraitzen du: gaur egun, batez ere pentsionisten alde. Bi alaba dauzka.

Antonio Olariaga Goirizelaia (1906-2010)



Frunizen jaio zen, eta 3 urte zituela eraman zuten Zaldibiara. Ama Frunizkoa zuen, eta aita Zaldibiako Urtsutxiki baserrikoa. 5 anai-arreba ziren etxean. Zaldibian ibili zen eskolan, eta 7 urterako artzain joan zen Bizkaiko Arrieta herrira. Aita artzaina zuen eta elkarrekin ibili ohi ziren. Uda Aralarren pasatzen zuten ardiekin. 40 urte zituela ezkondu zen Gabiriako Zantagoiti baserrira.

Jexux Sukia Agirre (1935)



Aralarko Guardetxean jaio zen, gurasoak artzain izanik batetik bestera ibiltzen baitziren. Halaxe jaio eta hazi zen Jexux ere, artzaintzarako zaletasun ikaragarriarekin, afizioa eta ofizioa uztartuz. Uda Aralarko Guardetxean pasatzen zuten, udazkena Hernialde eta Urnietan, eta negua Hondarribiko Jaizubia auzoko Ipistiku baserrian. Zaldibiako Txamarretxe etxean, oso bolada motzak igarotzen zituzten. 31 urtez izan zen artzain; baina Miren Etxabe Arruabarrena zaldibiarrarekin ezkondu zenean, bi seme-alaba izan zituzten, eta haienezako bizimodu gogorregia izango zelakoan, artzaintza utzi eta CAFen hasi zen lanean. Lau urte geroago, Zaldibiako zentralera joan zen lanera, eta bertan jarraitu zuen erretiroa hartu zuen arte. Artzaintzarako grina, orde, ezin zuen buru eta bihotzetik kendu; eta, Larraitzen baserria erostearekin bat, 65 ardiko artalde osatu zuen. 2000. urtean, zentraleko lanak amaitzean, baserriko lanak amaitzea ere erabaki zuen; eta, harrezkero, Zaldibin bizi da, lasai eta oroitzapen goxoan konpainian. Begietako dizdiran nabari zaio artzaintza odolean daramala eta berea duela.

Fermin Sukia Goikoetxea (1929)



1929an jaio zen Zaldibiako Lizarraga baserrian. Aita Lizarraga bertakoa zuen eta ama Ataungo Iturtxokoa. 16 anai-arreba ziren. Umetan Ordiziako "Hermanos de La Sallen" eta karmelitetan ibili zen eskolan; geroago, Bilbora joan zen ikasketak egitera. Aitarekin ibili zen txofer lanetan eta gerora Sukia etxe-tresnen denda ireki zuen Ordizian.

Victor Sukia Goikoetxea (1924)



1924an jaio zen Zaldibiako Lizarraga baserrian. Aita Lizarraga bertakoa zuen eta ama Ataungo Iturtxokoa. 16 anai-arreba ziren. Umetan Zaldibian ibili zen eskolan baina denbora gutxi egin zuen. Bera izan da betidanik baserriko lanetan aritu izan dena familian. Baserritik bizi izan dira beti. Aitarekin txofer lanetan ibilia da.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Iritziak

1.1. Erromerietan neskak dantzan nagusiki

- **Hizlaria(k):** Sukia Goikoetxea, Fermin; Sukia Goikoetxea, Victor
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZDB-004/013
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:21:52. **Bukatu:** 00:24:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- **Laburpena:** Igandeetan inguruko herrietako festa eta erromerietara joaten ziren. Ferminek Larraizko erromerietako aipamena egiten du. Neskek bakarrik egin ohi zuten dantza. Neska-laguntze kontuak.

Transkripzioa

- Victor: Jaietan-ta, segun festak nun zien, hauntza juten giñen.
- Inguruko herritako festeta.
- V.: Inguruko herrita, bai: Larraitza, Itsasondoa, ta herri koxkorreta. Honea're bai, klaro. Honea...
- Fermin: Nik e... gauza bat, erabateko atentzioa eman zin. Ba, Larraizko festatan, o beno, han, soiñujolea, soiñujolea, ta soiñun dantzan. Eta dantzako garaien, ba, neskak generalmente bakarrik. Mutillek ez giñan juten dantza egitea, bildurra o ez dakit zergatik, o zea, ez giñan juten. Juten zan igual... norbait jungo zan, baiño ni behintzet gogoratzen naiz oso jende gutxi [izaten] zala. Eta gauza zelebrea, ba, ia, esaten zan ordun aimarik jotzeko, ez dakit zazpitan o zortzietan o ez dakit ze ordutan zien, ta ordun zeatzen zienen, ordun neskak, ba, ospa!
- Etxera.
- F.: Etxea abitzen zien. Eta ordun mutillek atzetikan eta estreina neskai

heltzen zionak, hura harrentzako.

- Nahi bazun izango zan.

- F.: Baiño han ez zun... nik ez nun behiñ'e ikusi...

- Ez al zan bat'e ezezkoik?

- F.: Nik ez nun behiñ'e ikusi han ezezkoik. Esan nahi det, nei... eta neri, egia esango dizut, nik e... erabateko atentzio haundia eman zin, estreiñeko aldin, nik okasio hori izan nuen ikusteko. Eta ni gaztegoa izango nitzan eta... beno. Baiño erabateko...

- Ze itten zan?

- F.: E?

- Mutillek heltzen zionen neskai kuadrillatik aparte utzi?

- F.: Mutillek han, mutillek beida neskak nola dantza egiten zuen, ta dantza bukatzen zan garaian, hasten zien neskak... bueno, bata besteai zeatu ta... izango zien batzuk alde batekok, bestek bestekok... Eta korrika bi-hiru mutil ta estreiña heltzen zienak...

- V.: Bueno, baiño atzetik juten zanak genealen bazekin zeñena zijon, e.

- F.: Aaa! Jakingo zuen ia pixka bat e... Hori nik ez nekin. Nik... ni naiz gogoratzen naizena pues bastante gaztea nitzala.

- V.: Bai, bai, bai [...] hoi holakoa dek eta halako tokitakoa dek eta...

- Bai, txarrenana ez ziñan jungo.

- V.: Bueno bere ustetan, bere ustetan txarrenana nola jungo giñen ba?

- F.: Bere gustokoa, bere gustokona.

- Ta gero neskari heldu ta zer, etxera lagundu edo?

- F.: Etxeraiño lagundu.

- V.: Etxeaiño lagundu.

- F.: Bai, etxeraiño, nik usten dut baietz.

- V.: Behin abittu ezker etxeaiño jun beharra zeon.

- F.: Esaten dute, hola, txiste bezela, e, nola ze esaten hasten da ba, neska laguntzea jun...

- V.: Bai, joe, neska laguntzea jun ta neskan itxea aillatu da ta esan dio: "Honbre, honeaiño ya ke etorri zeon, bokadillo bat eo zerbait jango dezu / jangozu/" ta esan omen zion "Ez! nahikua janda nau ta beste batean jango det". Harek bokadilloa hauntza aillatzeako nahi zun, baiño nola ez zion eman hauntza aillatu bitarten, ta hauntza aillatu zanen esan zun "alperrik dek oain".

2. Familia eta harremanak

2.1. Lotuan dantza egitea bekatu!

- **Hizlaria(k)**: Sukia Goikoetxea, Fermin; Sukia Goikoetxea, Victor
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Otegi, Aitziber
- **Erref**: ZDB-004/015
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:26:35. **Bukatu**: 00:29:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- **Laburpena**: Ez zuten tabernarako eta txikiteorako ohiturarik. Neskak tabernara sartuz gero gaizki ikusiak izaten ziren. Lotuan dantza egitea bekatu zen eta harrapatuz gero kongregaziotik botatzen zituzten. Lehenbiziko festara Donostiara joan zenekoa kontatzen du Victorrek.

Transkripzioa

- Eta herri deferentetako festata juten ziñetenen, tabernatan-ta ibiltzen ziñeten?
- Fermin: Bai, bai, bai, baiño...
- Victor: Tabernatan oso gutxi e. Taberna sartzen giñen bokadilloa jateko, baiño ean gutxi itten zan e. Ordun oso gutxi eaten zan.
- F.: Bueno, Victor, hori izan die... Beira, guk geok ez degu izan ohitturaik. Nik ez det izan ohitturaik. Eta ni jaietan lagunekin ateratzen nintzen, eta lagun hoiek normalmente txikiteoa ibiltzen zuten. Ia hemezortzi, hemeretzi, hoge urtekin esaten det, e.
- V.: Bai, bai, bai segun ze lagun zen bai.
- F.: Ordun izaten zuten. Nik ez. Eta jaien beakin ateratzen baldin banitzen eta hiru-lau txikito eran, ba, ia ni erdi mozkortuta, zeatik ez neuken ohitturaik.
- Ta neskak sartzen al zien tabernaa?
- F.: Neskak? Ez zien sartzen, ez, ez hoi, hoi ya, hoi debekauta zeon hori.
- V.: [...] neska beandu arte ez zan hasi tabernaa sartzen. Guk hoitamar urte giñuztenen, neska bat tabernaa sartzen bazan, hola behatzakin esaten zien "Aizan, hue...". Ba... erabat diferentia zan, erabat diferentia.
- F.: Beno, hori bai, hori jakingo dezute, baiña bai, hori horrela... hori hola zan desdeluego. Hori... diferente, diferente.
- Ta esan dezue dantzan itten zenduela erromeritan ta dantza lotun ittea libre zan hemen?
- V.: Bai, bai, bai, beno...
- F.: Bueno, libre... ordun esaten zuen e, ordun esaten zuen "E! aizu...", elizan esaten zigun dantza lotun egitea pekatu zala, e! Baiño halaz guziz'e...
- V.: Bai, bai, guk dantzan... ba, horregatik dantza eitten gendun.
- F.: Eitten gendun.
- V.: Bakarrik, nik dauketen andreek ez zon harrek behiñ'e dantzaik in mutillekin, nobio izan giñen bitarten. Harri debekauta zeuken, porke Marian alaba zalako, "hija de Maria". Ta nik behin esan nion: "Ba ni Luisena naiz, ba! Zu Mariana izango zea ta ni Luisena naiz. Eta total biok..." eta horreatik hasi giñen. Aurreneko dantza eittea bakizu noa jun nitzen ni? Donostiko Igeldoa, andregaiekin.
- Izkutun, iñorrek ez ikusteko.
- V.: Pixkat bai, pixkat bai. Aurreneko trena hartu eta trenea're bakoitza bere tokitik jun giñen. Trenen juntatu giñen. Eta nik hoitamar urte neuzken, ta neskak hoitabost, oseake ez giñen mutil koskorak.
- F.: Bai, nik ez dakit zergatik zan, lotsa ez, baiño...
- V.: Ez, baiño seittun: "A bai, horrekin hasi den!" ta... beti hoi... hoi ebitatu eziñik ibiltzen zan mundu guztie.

2.2. Umetatik garbi zuen aktore izan nahi zuela

- **Hizlaria(k)**: Garmendia Mendizabal, Aitziber
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: ZDB-021/003
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:00:56. **Bukatu**: 00:02:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Aisia » Kultura » Antzerkia

- **Laburpena:** Familian ez zegoen antzezlerik, baina berak umetatik argi zeukan taula gainera igo nahi zuela, jendeari barre eginaraztera.

Transkripzioa

- Eta zure, bueno, antzerki zaletasuna eta - ez? - aktore izateko grin hori ta, e... umetan sortu zan? Ze... Zure inguruan bazegoen norbait familian, e...
- Inor ez, ke ba !
- ... ala, hola, sen hori zeukana umorerako, edo?
- Ez, ba egia da nire ama beti oso.. nirekin oso jolaste aldekoa izan dala eta oso teatrera zentzu hortan, ez da horta dedikau baiño bazeuken ba igual kutsu hoi, ez? E.. ba beti elkarrekin pailazona eitten ta... hola ibiltzen giñelako. Baiña bestela ez neuken inor ingurun hola... horta dedikatzen zanik, behintzet. Baiño garbi neuken, eske garbi neuken, eszenario bat ikusi orduko berta igo beharra neuken o... kamara bat ikusi orduko... arpegi imposible guztik probatzen hasten nintzen. O sea.. Baneuken zeoze barrun esaten zitena: "nik hau nahi det eta ni... honta dedikau nahi det". Gero ya aurreraxe antzerkin hasi nintzen, baiño ba ya koxkortutakon, hamar-hamaika urtekin.
- Eta, e... adibidez Txiribiton...
- Bai, bai.
- ... zuk beti esandakoa da Txiribiton e... izan nahi zenuela, ez?, edo bueno, hori zela zure...
- Bai.
- ... ume-umetan.
- Txiribitonek kriston grazia itten ziten eta... karo, amai esaten nion nik berdiña nahi nun nik, e... nire griña zan, ya txiki-txikitatik, jendeai parre eginaraztea, eta hori neuken garbi, hori nahi nula.

3. Aisia

3.1. Txiribiton, bere idoloa umetan

- **Hizlaria(k):** Garmendia Mendizabal, Aitziber
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** ZDB-021/005
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:02:48. **Bukatu:** 00:03:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Antzerkia
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena:** Txiribiton zen bere idoloa, umetan, eta gero Lina Morgan eta ondoren Elena Irureta.

Transkripzioa

- Bai, Txiribiton zan nere... nere idoloa momentu hortan. Ez dakit zenbat urte eukiko nittun, ba lau-bost bat. Eta nola parregurea ematen ziten ta nere... ba griña haundiña parre egiñaraztea zan, esaten nion amai: "Ama, nik haunditan izan nahi det gizona eta potoloa". Eta ni gogoratzen naiz amak esan zola - bueno, nahiko ondo enkajau zon, garai hartan -: "Bueno, bale, benga". Ta geo ya aurreaxego Lina Morgan ezautu nun ta esan nion: "Ez, ama, ez det nahi izan gizona, nahi det izan Lina Morgan bezela", eta amak esan zon: "Bueno, errexago". Eta hola hasi zan bidea.
- Eta zein... eee, ez?... eta hurrengo zein izan a, Lina Morganen

ondoren...?

- Lina Morganen ondoren ya Elena Irureta, ta ya amak esan zon: "Ondo, ondo, ai gea gerturatzen". Porke lehena izan zan gizona ta... ta... eta gero ya emakumea, baiño... behintzat bertakoa ya Elena Irureta, ta esan zun: "Ba! Ya ai gea gertuatzen, etxea gerturatzen ai gea, umea arraston sartzen ai da", nolabait.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Ganadu-lapurren inguruko kontuak (ZDB-001/001)

Pasadizo bat kontatzen du. Ardiak jezten ari zela, ganadu-lapur bat joan zitzaion gazta eske. Gaztarik ez ziola emango, eta hamar pezeta eskaini zizkion, baina ez zion onartu, orduan gazta batek diru gehiago balio baitzuen.

2. Fraideak ere eskatzen onak (ZDB-001/002)

Fraide batekin gertatua azaltzen du.

3. San Migelgo pasadizoa (ZDB-001/006)

Lagun batzuekin San Migelera joan zeneko pasadizoa. Fraidearekin pasatakoak. Ezagun batzuk izendatzen ditu. Apaizen inguruko iritzia.

4. Argindarraren pasoa etxe ondotik (ZDB-001/007)

Argindarra bere baserri ondotik pasatzen zen. Etxarritik Amezketarako bidea egiten zuen. Kokalekua aipatzen du. Arbizuko guarda bat ibiltzen zen ingurua zaintzen.

5. 'Konporta' ezizena (ZDB-001/008)

Ezizena Konporta zuen, horixe baitzen baserriaren izena.

6. Tximistak eragindako kalteak (ZDB-001/009)

Elurteekin eta tximistarekin arazoak ezagutu zituen. Berari eta beste ezagun batzuei ardiak hil zitzaizkien tximistak jota.

7. Kimatzearen inguruko kontuak (ZDB-001/010)

Ahariantzako arbola-hostoak kimatzen ziren. Sarri eguraldi txarrarekin jolas egiteko astirik gabe jarduten ziren.

8. Txerriak jan preziatua (ZDB-001/011)

Garai batean Zaldibian jende askok izan ohi zituen txerriak etxean. Gaur txerrikiari asko begiratzen zaio txarra omen dela eta, orduan berriz ez zen besterik jaten. Gaur jana kontserbatzeko aurrerapen hobeak daude.

9. Zaldibiako Lizarraga baserrian jaioak (ZDB-004/001)

Beraien burua aurkezten dute; Zaldibiako Lizarraga baserrian jaio ziren Fermin 1929an eta Victor 1924an. Etxe batean, bi bizitzatan, 28 ume bizi omen ziren; anekdota bat kontatzen du.

10. Aita zaldibiarra eta ama Ataungoa (ZDB-004/002)

Victor 31 urterekin ezkondu eta Ordiziara joan zen bizitzera. Aita Zaldibiakoa zuten eta ama Ataungo Iturtxo baserrikoa. Amak osaba apaizari laguntzera Zaldibiara joan zenean ezagutu zuen aita. 16 anai-arreba ziren.

11. Aotsanean pilotan; anai-arreba gazteagoak zaindu behar (ZDB-004/004)

Umetan Zaldibiako Aotsanera joaten ziren pilotan jolastera. Jolaserako asti gutxi izaten zuten, asko ziren eta anai-arreba gazteagoak zaindu behar izaten zituzten.

12. Etxeko lanek eskola galarazi (ZDB-004/005)

Anaietako bat gerrara joan zenean aita Donostiara joaten zen esnea saltzera eta Victorrek etxeko lanak egin behar izaten zituen, ezin izaten zen eskolara joan sarritan.

13. Zaldibiako eskolan erdaraz hitz egin behar (ZDB-004/006)

Victor eskolan Zaldibian ibili zen, 7 urterekin hasita. Maisu erdalduna zuen eta ezin izaten zuten euskaraz hitz egin. Pasadizo bat kontatzen du.

14. Ordiziako gazteek ez zekiten euskaraz (ZDB-004/007)

Fermin Ordiziako eskolan ibili zen eta gazteek ez zekiten euskaraz hitz egiten, lantegiak zirela eta kanpotar asko sartu baitzen. La Salleko fraideak ziren Ferminen maisuak hasieran; gero moja karmeldarrak.

15. Fermin Bilbora ikastera joan zenekoa (ZDB-004/008)

Beraien etxearen (Lizarraga baserriaren) kokapena aipatzen dute. Ordiziara edo Beasainera eskolara joateko Fermin bizikletaz joaten zen. Urte pare baterako Bilboko Begoñara joan zen ikastera, apaiz zuen anaiaren bitartez.

16. Apaiz izateko eskaintza egin arren, baserriko lanetan aritu behar (ZDB-004/009)

Eskolan zer ikasten zuten. Dotrina derrigorra izaten zen. Victorrek Zaldibian 3 urte egin zituen eskolan eta handik aurrera baserriko lanetan aritu behar izan zuen. Apaiz izateko eskaintza egin zion anaia batek, baina etxeok baserrirako hartu zuten.

17. Eskolako zigorrak (ZDB-004/011)

Eskolan erregelarekin jotzen zituzten gaizki portatuz gero. Eskola nazionaletan euskara debekatua zegoen, baina fraideetan onartua zegoen.

18. Luistarren eta Mariatarren kongregazioak (ZDB-004/016)

Luistarren eta Mariatarren kongregazioen inguruko kontuak.

19. Estraperloa eta errazionamendua (ZDB-004/017)

Estraperloa eta errazionamendua ezagutu zituzten. Etxean behiak zituzten eta etxeko lanetan morroiek laguntzen zieten. Aitaren inguruko kontuak aipatzen dituzte.

20. Esnea saltzera Donostiara (ZDB-004/018)

Behi-esnea Donostiara saltzen zuten, ospitale zibilera nagusiki, eta sobratzen zitzaiena Bretxako azokan.

21. Behi-esnea saltzera Ordiziara eta Donostiara (ZDB-004/020)

Amak etxeko esnea Ordiziako azokara eramaten zuen Donostiara hasi aurretik. Baratzean lantzen zutena etxerako uzten zuten.

22. Txerria hildakoan txerriekien banaketa auzoan (ZDB-004/021)

Eguneroko otorduetan babarruna jaten zen gehienbat eta egun berezietan garbantzuak. Etxean txerria hiltzen zuten eta mondejuak eta odolkiak egiten zituzten. Ohitura izaten zen txerria hildakoan auzora odolkiak eta mondejuak eramatea.

23. Apaizari eta gurasoei berorika (ZDB-004/022)

Apaizari berorika hitz egiten zioten ta baita gurasoei ere. Anai-arreben artean zuka hitz egiten zuten.

24. Gaixotutakoan medikua etxera (ZDB-004/023)

Herrian sendagile bakarra zuten eta haren aipamena egiten dute. Medikua bera joaten zen gaixoaren etxera; ez zen anbulantziarik izaten, ezta seguridade sozialik ere eta poltsikotik ordaindu behar izaten ziren medikuak.

25. Herriko telefonoa euren etxean (ZDB-004/025)

Ura eta argia beti izan zuten etxean. Ferminek zazpi urte zituela bainugela, dutxa eta pribilejio handiak ezagutu zituen. Herriko telefonoa euren etxean zegoen. Zaldibiako urtegiak aipatzen dituzte.

26. Errekara arropak garbitzera (ZDB-004/026)

Etxe ondoko errekan garbitzen zituzten arropak. Neska bat joaten zen etxera amari etxeko lanetan laguntzera. Lixiba nola egiten zen eta orduko xaboia etxean nola egiten zuten azaltzen dute.

27. Lotarako ohea erdibanatu behar (ZDB-004/028)

16 anai-arreba zirenez, gela bakoitzean ume asko izaten ziren eta lotarako ohea erdibanatzen zuten.

28. Ardi-ilezko eta arto-azalezko koltxoiak (ZDB-004/030)

Orduko koltxoiak ardi-ilez eginak izaten ziren eta beraien aurrekoenak arto-azalezkoak. Koltxoa noizean behin askatu eta astindu egin behar izaten zen.

29. Mutilak ere etxeko lanetan (ZDB-004/031)

Amak etxeko lanak egiten erakutsi zien mutilei ere. Baserriko zoruari argizaria ematen zioten.

30. Orduko baserriak (ZDB-004/032)

Orduko baserrien egitura azaltzen dute.

31. "Sukia garraioak" (ZDB-004/034)

Eskolan gutxi ibili ziren, etxean lagundu behar izaten zuten eta. 4 anaien artean "Sukia garraioak" martxan jarri eta kamioiekin lanean hasi ziren.

32. Ur-errotak irin hobia elektrikoak baino (ZDB-007/001)

Urarekin mugitutako errotak irin hobia egiten omen du elektrikoak baino. Talo asko jaten zen orduan.

33. Sukia gotzaiaren etxean neskame (ZDB-007/004)

Sukia gotzaiaren etxean egon zen gero neskame, Zaldibian bertan. Lanak zerrendatzen ditu. Ondo konpontzen zen etxeko alabarekin.

34. Ohe gainean saltoka (ZDB-007/008)

Jolasean asko ibiltzen ziren, ohe batetik bestera saltoka eta. Jergoiak hondatu ere bai. Urtean behin jotzen zen artilea. Estimazio handia zuen orduan artileak.

35. Buztinezko irudiak egiten (ZDB-007/010)

Ezcutaketan, puxtarriekin eta abar jolasten ziren. Buztinez irudiak egiten aritzen ziren eguraldi txarra zenean. Trapuzko panpinak ere egiten zituzten. Egurrezko "koa" (sehaska) egin zuen.

36. Bizikletatik erori (ZDB-007/011)

Bizikletarik ez zuten txikitan, gerora ikasi zuen. Behin, Lazkao aldean erori egin zen eta apaiza etorri zitzaion jasotzera.

37. Neska-laguntzea Mirandatik Parisera (ZDB-007/012)

Herrian bertan, Bentaberrin, erromeria egiten zen soinuarekin. Bertsolariak ere izaten ziren. Erromeriaren ondoren neska laguntzea. Zaldibiako esaera omen zen: "gaur ere neska-laguntzea egin det nik Mirandatik Parisera" (bi leku daude izen horiekin). Saturdin eta Larraitzen erromeria handiak egiten ziren.

38. Zigarroa erretzen ikasi (ZDB-007/013)

Dantza lotua bekatu handia zen eta ezin zen egin. Tabernan sartzea edo zigarroa erretzea ere ezinezkoak ziren. Alabekin ikasi zuen zigarroa erretzen; osasun arazoengatik utzi zuen.

39. Aitarekin garotara (ZDB-007/016)

Aitari laguntzen ibiltzen zen baserriko lanetan. Garotara joaten ziren Oiduitik gora Irusta mendira. Idiak zituzten eta haiekin egiten zituzten garraio eta labrantza lanak.

40. Gaztaren usaia datorkio gari-lanak aipatzean (ZDB-007/017)

Gari-ebakitze lanak gogoan ditu. Orduko gaztaren usaia datorkio, oraingoak ez duena. Garia nola lotzen eta jotzen zen azaltzen du. Harrian jotzen zuten makinak agertu arte.

41. Mondejuak egiten (ZDB-007/019)

Mondeju onak egiteko gai ona behar da. Porrua eta seboa omen dira inportanteenak. Lehengaiak zeintzuk diren eta prozesua nola den azaltzen du.

42. Zaldibiako auzoak (ZDB-007/021)

Baserri asko hustu da Zaldibian. Bost auzo ditu Zaldibiak: Aizterreka, Egileorra, Otsoerreka, Arruegi eta Elbarrena.

43. Aitak semea animatu jokoan jarrai zezan (ZDB-007/024)

Karta-jokorako zaletasun handia egon da Zaldibian. Behin txekor diruak jokatzeko eta galtzeko ari omen zen baserriko semea tabernan eta aita joan omen zitzaion jarraitzeko esatera.

44. Zaldibiako denda eta tabernak (ZDB-007/025)

Lau-bost bat taberna ziren, Arresenea, Joxepanea... Nazabalenea beranduagokoa da. Mariaundiña esaten zitzaion dendari eta denetik egoten zen.

45. Hika eta berorika (ZDB-007/026)

Hika egiteko ohitura handia dago Zaldibian, berak ere asko egiten du. Egon zen kanpotik etorritako bat herrian hika ikasten. Apaizei eta berorika, eta zenbait familiatan gurasoei ere bai.

46. Asko aldatu da euskara (ZDB-007/027)

Asko aldatu eta nahastu da euskara, batua dela eta. Hilabeteen izenekin gertatzen da, esaterako.

47. "Flor de azahar", birjintasunaren ezaugarri (ZDB-007/030)

Hogei urterekin ezkondu zen. Tabernan izan zuten bazkaria. Beltzez jantzita joan zen bera. Soinekoan "flor de azahar" bat eramaten zen, "usatua ez zegoen seinale", omen.

48. Ogia eraman behar elizara etxeko norbait hildakoan (ZDB-007/031)

Lutoaz. Urtebete, etxeko norbait hiltzen bazen. "Luto erdia" noiz erabiltzen zen. 14 hilabetez ogia eraman behar zen astero elizara. Mantalina beltzez burua estalita eraman behar etxeko andreak.

49. Gurasoak eta haien lanbideak (ZDB-010/002)

1933an Zaldibiko Olegi baserrian jaioa. Aita bertakoa eta ama Igartzeta baserrikoa zituen. Biak artzain familietakoak ziren. Patxik ez zituen ardiak ezagutu etxean. Aita tarteka fabrikan ibili zen lanean. Gerra garaian CAF lantegia militarizatua egon zen eta aitak bertan lan egin zuen gerra amaitu arte. Amak etxeko lanak egiten zituen. 8 anai-arreba izen ziren.

50. Aita idi-tratuan ibilia (ZDB-010/003)

Baserrian behiak izan zituzten. Aita idi-tratuan ibiltzen zen. Idi parek zenbat ordaindu zuen.

51. Bentaberri baserriaren historia (ZDB-010/004)

Bentaberri baserriaren historia. Eraiki zuena Erreterriakoa zen. Olegiko lurretan dago eraikia, Patxiren aitona saldu omen zien lursaila. Eraiki zuten garaian Alkortaenea izena jarri zioten. Taberna izan zen baina gerra garaian langile gabe gelditu eta zorreatik galdu egin zuten 1937an. Etxeare izena nork aldatu zion. 1941ean jabeak berriz ireki eta tabernarekin jarraitu zuen beste urtebetez. Gero Ordiziako Joakin Zubeldiak hartu zuen. Gaur egunera arte izan dituen beste jabeak. Erromeria egiten zen bertan.

52. Baserriko lanak (ZDB-010/005)

Aita idi-tratuan ibiltzen zen eta idi parek erosi zuen. Baserriko lanetarako idiak eta behiak erabiltzen zituzten. Garia, artoa, arbia eta patata zituzten. Lan asko izaten zen urte guztian.

53. Behi onak izan zituzten (ZDB-010/006)

Esnetarako behiak zituzten, arraza onekoak, suitzarrak. Denerako balio zuten. Esnea saldu egiten zuten. Bera umea zela hasi zen esnea eramaten Alegiko gizon bati eta hark Donostiara eramaten zuen. Etxez-etxe ere banatzen zuen. Zeintzuk ziren bezeroak.

54. Ordiziako karteroa (ZDB-010/007)

Esnea erosten zien bezeroetako bat Ordiziako karteroa zen. Gurdiarekin ibiltzen zen Zaldibia eta Ordizia arteko enkarguak egiten. Autobus pribatu bat ere bazen garai hartan baina asteen behin bakarrik egiten zuen bidaia. Karteroak jendea ere garraiatzen zuen.

55. 9 urterekin esnea banatzen (ZDB-010/008)

Bezero batek etxeko mahai gainean uzten zion litroko ontzia eta Patxik esnez betetzen zion. Sobratzen zena esne-saltzaileari eramaten zion. Marmitak erabiltzen zituen. 10-12 litrokoak zituen ziren. 9 urte zituela ibiltzen zen esnea banatzen.

56. Umetan zuhaitzetara igota fruta biltzen (ZDB-010/010)

Fruta-arbola asko zituzten. Sagarrak, txermenak, aranak, gereziak... 6-7 urterekin zuhaitzera igota biltzen zituen frutak. Behin lehengusuak egindako eskapada.

57. Etxeko sagardoa eta sagar motak (ZDB-010/011)

Sagardoa egiten zuten auzoko tolairean. Etxera eraman eta kupeletan gordetzen zuten. 1.500 litro inguru egiten zituzten etxean eta gainontzeko sagarra saldu egiten zuten. Txori-sagarra erabiltzen zuten gehienbat. Beste sagar mota batzuk. Ordiziako ferian ere saltzen zituzten. Ganbaran gordetzen zituzten. Gordinik edo erreta jaten zituzten normalean.

58. Gaztaina tona asko biltzen zuten (ZDB-010/012)

Ordiziako ferian sagarra eta gaztaina saltzen zuten. Gaztaina tona asko biltzen zuten. Lursail batzuk errentan ere bazituzten. Bera jaio aurretik gaztainondo gehiago zeuden.

59. Ordiziako feria (ZDB-010/013)

Zaldibian ez zen feriarik egiten, Ordiziara joaten ziren saltzera. Beasainen ere egiten zen asteartetan. Ordizian denetarik egoten zen: barazkiak, fruta, ganadua... Asteazkenero izaten zen, egun guztikoa. Behin umetan behia saltzera joan zen aita eta aitonarekin. Ez zuten leku finko bat izaten. Salmentetan gorabeherak izaten ziren. Erosleak kanpotik joaten ziren.

60. Ordiziako "Astokale" (ZDB-010/014)

Ordiziako ferian, astoak "Astokalen" lagatzen ziren, "Siglo XX" tabernatik behera (gaur egun Herriko Taberna). Paretan eraztun batzuk egoten ziren soka lotzeko.

61. Ia garraiorik ez orduan (ZDB-010/015)

Ordiziako feriara joateko baziren autobusak baina gehienak oinez joaten ziren. Bentaberriko erromeriara jende asko etortzen zen bidean eta arazorik ez zen egoten, kotxerik ez baitzen orduan. Askok bizikletaz etortzen ziren.

62. Santa Fe jaietan txekorra hiltzen zen etxean (ZDB-010/016)

Txekorrak hazi eta hiltegira eramaten zituzten hiltzera. Baina garai hartan etxean ere hiltzen ziren. Gerra garaiko eskasiarekin tranpak ere egiten ziren. Santa Fe jaietan ohikoa zen txekorra etxean hiltzea. Harrapatuz gero isuna jaso zezaketen.

63. "Junta de Abastos" ganadua kontrolatzeko (ZDB-010/017)

"Junta de Abastos" deituriko erakundeak kontrolatzen zuen ganadua gerraostean. Txekorrak noiz eta ze preziotan saldu behar zituzten agintzen zieten. Estatuak ezarri zuen eta zaldibiarrek ziren.

64. Zaldibiako errotak (ZDB-010/018)

Gerraostean errotak itxita egon ohi ziren tarteka. Zaldibiako errotak aipatzen ditu. Mutiko garaian askotan joaten zen errotara artoa ehotzera.

65. Artoaren garrantzia (ZDB-010/019)

Artoa oso garrantzitsua zen garai hartan. Txerriei jaten emateko ere erabiltzen zuten arto-irina. Talo asko jaten zuten orduan.

66. Gerraosteko janari eskasia (ZDB-010/020)

Errazionamendua ezarri zen garaian baserritarrek ez zuten goserik pasa. Bazituzten esnea, babarrunak, taloak... Haragiaren inbidia izaten zuten. Ez zegoen azukrerik, oliorik... Soilik estraperloan lortzen ziren. Behin aitak 80 kg babarrun eraman zituen Ordiziako denda batera, 5 kilo azukreren truke. Patataren ordeztatu batata (boniato) ematen zuten errazionamenduan. Ogia oso txarra zen.

67. Etxeko ogia (ZDB-010/021)

Etxean ogia egiten zuten, nahiz eta ez zeukaten laberik. Amak ekonomikan egiten zuen. Irina okindegira eramanda ere egiten zuten.

68. Haragi gutxi jaten zuten (ZDB-010/022)

Taloea eta esnea gosaltzen zuten, helduek arrautzaren bat ere bai. Bazkaltzeko gehienbat babarruna. Udazkenean ardiren bat hiltzen zuten eta zezina izaten zuten. Baina okela gutxi jaten zen orduan. Txerria ez zuten San Martinetan hiltzen, urte hasieran baizik. Mondejua ere prestatzen zuen amak; arrautza gutxi zenean mondeju beltza egiten zuen, Ataungo amonak irakatsitako erara. Ganadua oso argal egoten zen ekartzen zutenean.

69. Uraren eskasia eta arropa garbiketa (ZDB-010/023)

Argia betidanik ezagutu du baserrian. Urarentzat atarian bi putzu zituzten, bat ganaduak edateko eta bestea arropa garbitzeko. Ura eskas izaten zen eta errektara joaten ziren. Arropa garbitzeko nola egiten zen. Xaboi gisa sutarako hautsa erabiltzen zuten. Noizean behin armairuan gordetako arropak egurastu egiten zituzten.

70. Eskolan dena gazteleraz (ZDB-010/024)

Zaldibian bi eskola zeuden, mutilena eta neskena. Elizan ere aparte egoten ziren gizonezkoak eta emakumeak. Maisua Ataungoa zen, Martin "garatxo" esaten zioten. 8 urterekin hasi zen eskolan. Gero Arrasateko maisua eduki zuten. Gazteleraz ikasten zuten. Lehenengo errektatu egiten zuten eta gero kanta militarrek abestu, "Cara al sol" esaterako. Ez zuten gazteleraz ezer ulertzen, buruz ikasten zuten.

71. Dotrina eta jaunartzea (ZDB-010/025)

Dotrina eskolatik kanpo ematen zuten, apaizekin. Liburu txiki bat buruz ikasi behar izaten zuten. Diploma gisakoan zen txartel bat ematen zuten. Patxiri 12 urterekin eman ziotenean eskola utzi behar izan zuen, etxean lana zegoela eta. Komunio txikia 7-8 urterekin egiten zen eta gero komunio handia 12rekin.

72. Maisuen zigorrak (ZDB-010/026)

Eskolara gustura joaten zen. Zigor handirik ez zen izaten. Behin azazkalak moztu gabe zituelako erregelarekin jo zion maisuak. Beste behin dotrinaran kasu ez egiteagatik bikarioak Patxi eta bere lagun bati eskuan makilarekin jo zien. Gauetan amak dotrina erakusten zien etxean.

73. CAF lantegian 3 urtez (ZDB-010/028)

12 urterekin utzi behar izan zuen eskola eta baserriko lanetara itzuli. 1958tik 1961era fabrika ibili zen, CAFen. Krisia etorri zen orduan eta diru baten truke ateratzeko aukera eman zieten. Soldata oso ona ez zenez, atera egin zen. 28

urte zituen. Etxeko gorabeherengatik denboraldi batez ez zuen kanpoan lan egin.

74. CAF lantegian karga-deskargan (ZDB-010/029)

CAF lantegian karga-deskargan aritu zen 3 urtez. Kanporako lan asko egiten zen. Ikatz asko etortzen den. 60 laguneko lantaldea zeukaten. Larunbatetan ere lan egiten zen. Dena eskuzko lana izaten zen. Bizikletaz joaten zen eta etxetik eramaten zuen bazkaria.

75. CAF lantegian muntaketan (ZDB-010/031)

Karga-deskargatik muntaketara pasa zen CAF-en. Errematxaketan zebilenak istripua izan zuen eta haren ordezkot gisa hasi zen Patxi. Lanpostu hori gero desagertu egin zen baina 8 urte inguru ibili zen horretan. Garraioko trenen bagoiak egiten zituzten CAF-en.

76. Bilore lantegia (ZDB-010/033)

Bilore lantegiak jende asko ekarri zuen Zaldibiara lanera. Batez ere xaboia egiten zen. Jabeak ordizarrak ziren, Aranatarrak.

77. Herriko dendak (ZDB-010/034)

Herrian bazegoen dendaren bat, denetarik edukitzen zuen, baina arropa gehienetan Ordizian erosten zuten. Janaria erosteko ez zegoen herritik atera beharrik. Bizarginak baziren baina amak mozten zien ilea.

78. Zaldibiako tabernak (ZDB-010/036)

Taberna asko ziren Zaldibian. Zerrendatu egiten ditu. Denda batean ardoa ere saltzen zen. Lagunekin tabernetan karta-jokorako afizioa bazuten.

79. Bertsotan nola hasi zen (ZDB-010/037)

Bertsolaritzan aritutakoa da Patxi. Aitak egiten zuen bertsotan. 6 urte inguru zituela mendira joan zen aitarekin. Depositoko erromerian bertsotan ari ziren eta aita han aritu zen lehen aldiz jendaurrean. Basarri eta Uztapide Bentaberrira etortzen ziren garai hartan. Anaiarekin bertsolarietara jolasten zuen.

80. Bentaberrira etortzen ziren bertsolariak (ZDB-010/038)

Bentaberrira etortzen ziren bertsolariak: Basarri, Uztapide, Zepai, Txapel, Mitxelena, Lasarte, Hernaniko txikie (Paulo Zubiarraín)... Garai hartan bailaran izena zuten denak pasa ziren handik.

81. Bertsotarako lehenbiziko plaza (ZDB-010/039)

Patxiren lehenbiziko plaza Zaldibian izan zen, luistarren festan.

82. Bere bizipenen liburua idazten (ZDB-010/041)

Amak memoria oso ona zuen eta Patxik haren istorioak gogoan zituen. Lazkano bertsolariak eman zion liburua idazteko bultzada. Grabazioak egin zituen eta ilobek lagundu zioten idazten. Baina argitaratzea diru asko kostatuko zitzaiola eta geldirik utzi zuen. Udalak dirua jarriko zuela esan zionean berriz jarri zen martxan. Argitalpen lanetan zeintzuk dabilzan. Durangoko azokarako espero dute. (Urte horretan argitaratu zen liburua, 'Naizen apurra', 2009)

83. "Legorretako Jainkoak" bertsoan egitera bultzatu zuenekoa (ZDB-010/043)

"Legorretako Jainkoak" (Jesus Eskisabel Jauregi, lazkaotarra jaiotzez) bere etxera bazkaltzera gonbidatu zuen behin, Lazkao Txikirekin batera. Bazkal aurretik saio txiki bat egitera animatu zituen, nahiz eta Patxiri ez zitzaion gustatzen jendaurrean aritzea.

84. Zeinekin aritzen zen bertsoan (ZDB-010/044)

Lazkao Txikirekin aritzen zen gehientsuena bertsoan. Beste batzuk ere aipatzen ditu. Bailarakoak astero biltzen dira Ordizian saio bat egiteko. Lazkao Txiki oso bertsolari ona zen.

85. Lazkao Txiki ez kantatzera zigortuta (ZDB-010/045)

Euskaraz bertsoan aritzeagatik ez du sekula isunik jaso. Lazkao Txikik bai, baina behin Francorekin lotutako zerbait esan zuelako. Denbora batez debekatua izan zuen kantatzea. Txibatoak egoten ziren saioetan.

86. Bertso txapelketetako ibilbidea (ZDB-010/046)

Ordiziako txapelketan egon zen lehen aldiz, 1966an, Txapelketa Nagusirako kanporaketan. Bigarren gelditu zen. Gero Gipuzkoako Txapelketan egon zen baina ez zen klasifikatu. Denboraldi batean bertsolaritza utzita egon zen. Igartzabalek Osinalde saria (1971) antolatu zuenean animatu zen berriz eta irabazi egin zuen.

87. Ikasi zuen lehen bertsoa (ZDB-010/048)

Gogoan du ikasi zuen lehen bertsoa. Aitak kantatzen zuen eta Txirritarena zela esaten zuen. Kantatu egiten du.

88. Aitari ikasitako beste bertso bat (ZDB-010/049)

Villabonako batek Pello Errotari kantatutako bertsoa kantatzen du, aitari ikasia.

89. Lazkao Txikiren bertso bat (ZDB-010/053)

Lazkao Txikik kantatutako bertso bat kantatzen du.

90. Bertsolaritza asko aldatu da (ZDB-010/055)

Bertsolariak eta bertsozaleak asko aldatu dira. Baita hizkuntza ere. Bertsolari onak berezkoa behar du, bere ustez.

91. Zaldibiako euskararen egoera (ZDB-010/056)

Zaldibian euskaraz ondo egiten dela iruditzen zaio. Gehienak euskaldun zaharrak diren arren, euskaldun berriek ere ondo egiten dute.

92. Hika, zuka eta berorika (ZDB-010/057)

Anai-arrebekin hika egiten zuen. Gurasoei zuka egiten zieten, baina haiek seme-alabei hika. Apaizei berorika egiten zitzairen, baita adinekoei ere. Ferian emakumeek amari berorika egiten zioten eta Patxi harritu egiten zen. Gaur egun gazteek hika egiten dute Zaldibian. Lehen esaten zen zaharragoei hika egitea errespetu falta zela.

93. Gezurrak egiak baino gehiago balio (ZDB-011/001)

Gezurrak egiak baino gehiago balio omen du, ez duelako galerarik. Ez dago egirik gezurrik gabe. Zergatik jarri zituen jainkoak andrea eta gizona, beti haserre ibili arren?

94. Apelidue, "Antonio barkillerue" (ZDB-011/002)

Apelidue, "Antonio barkillerue" dio umorez. Bizkaiko Fruizen jaio zen, bera ez da gogoratzen baina. Aita Zaldibiakoa, artzaina, ama Fruizkoa.

95. Ama kurandera (ZDB-011/005)

Ama kurandera zen. Intxusaren azala erabiltzen zuen erreentzako. Etxera etortzen zitzaion jendea.

96. Udan Aralarren eta neguan Bizkaian (ZDB-011/007)

Bizkaiko Arrietan ibili zen artzain aitarekin. Larre jabeen etxera erretiratzen ziren. 100 bat ardi zuten. Udan Aralarren eta neguan Bizkaian egoten ziren. Igandetan jaisten ziren Aralarretik meza entzutera.

97. Aitak baserria diseinatu, idazten jakin ez arren (ZDB-011/010)

Berrogei urterekin Gabiriara ezkondu zen Santagoiti baserrira. Etxe berria egin behar izan zuten, eta bere aitak diseinatu zuen, berak egin zituen planoak nahiz eta idazten jakin ez.

98. Larraitzeko erromeria (ZDB-011/015)

Larraitzera joaten ziren erromeriara, egun guztirako. Hainbat soinu-jole izaten zen. Ez zegoen errepiderik. Dantza zalea zen bera. Abemariakoa jotzean etxera.

99. Aurpegira begiratuta dantzan nola egin jakin (ZDB-011/016)

Neska gutxi omen zen berarekin dantzan egin nahi ez zuenik. Neskaren berdin-berdin egiten zuen dantzan, bikote perfektua zen. Neskari aurpegira begiratuta jakiten zuen dantzan nola egin.

100. Amari esker libratu zen aita fusilatua izatetik (ZDB-011/019)

Herriko lau erreketek aitaren bila joan ziren, baina arditan zen eta ez zuten aurkitu. Ordizian aurkezteko agindua utzi zuten. Amarekin aurkeztu zen, eta horri eskerrak libratu zen. Herrian garbitu egingo zutela pentsatzen zuten.

101. 103 urte bete ditu aurten (ZDB-011/023)

Jokoan gutxi egin du. Parranda gutxi egindakoa da. 103 urte bete ditu aurten. Bizimodua ez daki, baina bera asko aldatu omen da.

102. Eskolan baino beldur gehiago bikarioarekin (ZDB-012/006)

Zaldibiako eskolara joaten zen Patxi. Maisua gogoan du. Eskolan erdaraz egiten zuten, maisuak ez baitzekien euskaraz. Erdaraz gaizki moldatzen ziren umeak. Maisua baino gogorragoa zen bikarioa; dotrina ikastean, lezioa ez bazekiten, zotzarekin jotzen zien eskuan.

103. Zaldibiatik Tolosako "Colegio Francés"-era (ZDB-012/008)

Eskolan, matematika, geografia, gramatika... ikasten zuten. 12 urtera arte ibili zen Zaldibiako eskolan; eta, handik, Tolosako "Colegio Francés"-era joan zen ikastera. Irakasleak frantsesak ziren; eta ondo pasa zuten han.

104. Aitaren ardura hezkuntzarekiko (ZDB-012/009)

Patxi Tolosara eraman zuten "Colegio Francés"-era. 13 urte zituela, ama hil zitzaizen, eta aitak hartu zuen seme-alaben ardura. Aitak garrantzi handia eman zion hezkuntzari.

105. Gerran gorriekin borrokan (ZDB-012/011)

Gerra hasi zenean, gorrien bandoan aritu zen borrokan Patxi. Gerrako oroitzapenak.

106. 13 urterekin gerrara (ZDB-012/012)

Nazionalak Tolosara iritsi zirenean, Patxi etxean zen. Bere bila etorri zen okina, borrokara eramateko; 13 urte zituen orduan. Prestatu eta 4-5 egun eman zituen mendian, borrokarako prest. Beldurrik ez zuen pasa orduan.

107. Guraso biak Zaldibiakoak (ZDB-021/002)

Gurasoak Zaldibiakoak ditu biak. Odoleko bi ahizpa dira, baina ahizpa 'postizoa' ere badauka.

108. Segura irratian, 9 urterekin (ZDB-021/007)

Segura irratora eta Euskadi irratora deitzen zuen. 9 urterekin lokutara moduan parte hartu zuen Segura irratoriko Gabonetako programa batean.

109. Lehenengo antzezlan 11 urterekin, Zaldibian bertan (ZDB-021/008)

Herri eskolan lehen antzezlan egin zuen, lagun batekin: Maripuri eta Euxebio. Pastelak irabazi zituzten.

110. Zaldibiako bertso eskolan ibilia (ZDB-021/009)

Zaldibiako bertso eskolan ibili zen. 11-12 urterekin bertso txapelketa bat irabazi zuen, eta bertsoak kantatzera igo zen oholtzara. Imanol Lazkano bertsolariak jantzi zion txapela.

111. Beasaingo antzerki eskolan, 13 urterekin (ZDB-021/010)

Beasaingo antzerki eskolan hasi zen Anuska lagun arekin batera, 13 urterekin, 15 urte zituztela esanda. Lagunak berehala utzi zuen, baina berak ez. Egia jakin arren, ez zuten bota. Dario Foren lan bat antzeztu zuten. Asko ikasi zuen sexuaz.

112. 15 urterekin Hamlet irakurri zuen (ZDB-021/011)

15 urterekin Hamlet irakurri zuen, institutuan. Berak aukeratu zuen zer irakurri.

113. Antzerkia oso terapeutikoa da (ZDB-021/012)

Ikastetxeetan antzerkia lantzea inportantea dela dio. Antzerki klasetan jende asko ezagutu du antzerkia terapia moduan hartzen duena. Emozioak lantzearen garrantzia. Norbere burua ezagutzeko eta besteekin enpatizatzeke balio du antzerkiak.

114. Aktore ikasketak eta Zuzenbidea (ZDB-021/014)

Aktore ikasketak eta Zuzenbidea ikasi zituen, Donostian. 18 urte behar ziren TAE n sartzeko, baina 15 urterekin hasi zen bera, lata ederra eman eta gero. Lanean zebilela egin zuen Zuzenbideko karrera.

115. 18 urterekin Tantakarekin lanean (ZDB-021/015)

Antzerkian hasi zen lehenengo, Tantaka antzerki taldearekin, 18 urterekin. 19rekin, berriz, Martin telesailan. Elena Irureta eta Joxe Ramon Soroiz aktoreak ziren bere gurasoak telesail horretan.

116. Telebista eta antzerkia (ZDB-021/017)

Antzerkia egin zuen lehenengo eta gero telebistan hasi zen: teknika eta errejistro diferenteak dira. Egindako antzerkien kontua galduta dauka.

117. "Emakumeak izarapean" eta "Erlauntza" antzezlanak (ZDB-021/019)

Markatu duten antzezlan batzuk aipatzen ditu: "Emakumeak izarapean", emakumeen sexualitatearen inguruan; Mireia Gabilondo zuzendaria. "Erlauntza" antzezlan. "Uda gau bateko ametsa" antzezlan ere aipatzen du.

118. Telebistan antzeztu dituen pertsonaia gustukoak (ZDB-021/021)

Telebistako pertsonaia eta lan batzuk aipatzeko eskatuta, "Martin" telesaila aipatzen du. Kariño berezia dio Gorane pertsonaiari ("Zuek hor" programarako sortua). "La Jaio" bere ahizpa da. Aitona artzainak gazta egiten zuen etxeko sukaldean eta bitartean ahizpak musika topera entzuten zuen gelan. "Zuriñe" pertsonaia gotikoak harrera ona izan du gaztetxoan artean.

119. Gidoilari lanetan telebistan; umorea egitearen mugak (ZDB-021/022)

Gidoilari lana ere asko gustatzen zaio, eta pertsonaiekin inprobisatzea ere bai. "Batek daki" programarako bakarriketak egitea eskola handia izan zen. Umorea inor mindu gabe egitea ez da posible.

120. Aurkezle lanetan izandako bizipenak (ZDB-021/023)

"Batek daki" programan aurkezle lanetan ibili zen, eta ez zen pertsonaia bat. Maskararik gabe jardutea ez zen erraza izan gai batzuekin lotuta: amatasuna, ebakuntza estetikoak... Amatasunaren kapituluaren inbadituta sentitu zen: "Aitziber Garmendiak amatasunaren dituen dudak".

121. Antzerkia, telebista eta zinema (ZDB-021/025)

Antzerkian jaio zen arren, telebista eta zinema ere gustuko ditu. Antzerkiaren abantaila: bat-batekotasuna. "Zinemak ez du gezurrik onartzen", planoak oso gertukoak direlako eta momentu batean eman behar delako dena.

122. Euskarazko zinemagintza (ZDB-021/026)

Euskarazko zinemagintzako mugarren artean "Aupa Etxebeste" aipatzen du. Komedia ez dago nahikoa baloratuta, bere ustez. "80 egunean" filma ere izugarri gustatu zitzaion.

123. "Sukalde kontuak" filma (ZDB-021/027)

Aizpea Goenagak zuzendutako "Sukalde kontuak" pelikulan hartu zuen parte. Casting-a.

124. "Txarriboda" filma eta indarkeria matxista (ZDB-021/028)

"Txarriboda" filmean ere egon zen: indarkeria matxistari buruzkoa zen, eta senargaiak bera hiltzen zuen. Oso gogorra egin zitzaion bai hilketaren eszena eta baita tanatoriokoa ere. Gorputza abandonatzea oso gogorra egin zitzaion.

125. 6 antzezlanekin eta 12 bertsioekin batera (ZDB-021/030)

Elkarrizketaren garaian sei antzezlanekin zebilen aldi berean, eta 12 bertsioekin. Eromena dela dio, baina zaila dela ezetz esatea, oso lanbide gorabeheratsua delako. "Fondoko karrera" moduan ikusten du.

126. Lanbide gogorra, gorabeheratsua (ZDB-021/031)

Lan asko egin du gustatzen zaion horretara dedikatzeko. Amarekin garbiketa lanetan ere ibili izan da, lanik ez zuen garaian.

127. Madrilera joanda sentitu daitekeena (ZDB-021/032)

Madrilera joatea, castingak edo ikastaroak egitera: ezezaguna izatearen abantailak eta desabantailak aipatzen ditu.

128. Gaztelaniaz nahikoa lan, lehen funtzioetan (ZDB-021/033)

Gaztelaniaz askoz hobeto moldatzen da orain, baina dikzio-klaseak hartu zituelako bi urtez, Madrilén. "Euskara bakarrik jakiteak ez nau euskaldunago egiten". Gero eta hizkuntza gehiago jakin, hobeto.

129. Batua eta euskalkiak (ZDB-021/034)

Batua eta euskalkiak. Euskalkizale amorratua dela dio. Hainbat euskalki landu ditu bere pertsonaietan. Batua ere beharrezkoa da.

130. Euskaldunak gaztelania hutsez sare sozialetan (ZDB-021/036)

Ez du ulertzen nola gazte asko euskaldunak izanda gaztelania hutsez aritzen diren sare sozialetan. Chicagon azaldu behar izan zuen euskara nondik datorren, eta harro sentitu zen.

131. Sare sozialen esklabu (ZDB-021/037)

Sare sozialen esklabuak garela dio. Oso baliagarriak dira saltzeko, baina morrontza bat eskatzen du. Aktore izan ez balitz ez lituzke Instagram eta Facebook izango. Pantaila atzean ezkutatzeko dira gazte asko, aurrez aurreko komunikazioaren kaltetan.

132. Teknologiak ekarritako bizimodu aldaketa (ZDB-021/038)

Bizimodua asko aldatu da urte gutxian, teknologia berrien eraginez. Gazteek barruko estimuloei kasu egiteko arazoak dituztela ikusten du, kanpora begira bizi direlako.

133. Zaletasunak (ZDB-021/039)

Antzerkia eta zinema ikustera joatea gustatzen zaio. Irakurzalea da. Familia eta lagunak dira bere altxorrik handiena. Ez da oso parrandazalea izan. Greace gustatzen zitzaion, bere lagunei Su ta Gar gustatzen zitzairenean. Orain parranda egiten du, bere lagunak umezain dauden bitartean.

134. Ahizpa-alaba arduratsuaren rola (ZDB-021/041)

Familiako "antzezlanak": ahizpa-alaba arduratsuaren rola egokitu zaio eta asumitu duen karga hori soltatzeko ahaleginetan ari da orain.

135. Zoriontasuna aukeratu egiten da (ZDB-021/042)

Zoriontasuna aukera bat dela dio. Anuska laguna ingesatuta egon zen, eta konturatu zen zoriontasuna nahi duzun lekuan nahi duzun pertsonarekin egotea dela. Erruduntasun sentsazioa da zoriontasunetik urruntzen gaituena.

136. Txamarretxe auzoan jaioa (ZDB-023/002)

Txamarretxe auzoan jaio zen, artzainen auzoan. Gurasoak baserritarrak ziren, baina kale-etxean bizi ziren. Aitak CAFen egiten zuen lana. Sei senide ziren. Biosola baserrira asko joaten ziren.

137. Kalean eta etxean hika (ZDB-023/004)

Kalean ikasi zuen hitanoa, lagun artean. Mutilen artean gehiago erabiltzen zuten. Berari hika egitea ateratzen zaio. Gurasoei bromatan bakarrik hika, bestela zuka, eta senideen artean hika egiten zuten. Hirugarrena da bera.

138. Neska-mutikoak umetan hika (ZDB-023/005)

Gaztetxotan erdaraz hitz egiten hasi ziren neskak (mutilak ez). Aitak debekatu egiten zien. Umetako jolasak zeintzuk ziren esaten du. Neska-mutilen artean hika egiten zuten.

139. Espainiako migratzaileekin zuten harremana (ZDB-023/006)

60ko hamarkadan migrazio handia egon zen herrian. Oso harreman ona izan zuten haiekin. Amak halaxe ikasi zuen erdaraz. Kanpotik etorritakoek ez zuten euskara ikasi, baina haien seme-alabek bai; kalean ikasten zuten euskara, eskolan dena erdaraz zelako.

140. Andaluziatik etorritako emakumeen ohiturak (ZDB-023/007)

Gizonak elkarrekin joaten ziren, eta emakumeak etxe aurrean elkartzen ziren. Berea ama galtzerdiak konpontzen zebilen bitartean Andaluziatik etorritako emakumeak pipak jaten ikusten zituztenean harrituta geratzen zen; emakume haiek Ordiziara ere joaten ziren zinera. Tomatea gordinik jateari buruzko komentarioak.

141. Bilore lantegiko neskak erdaraz; euskararen aldeko mugimendua (ZDB-023/008)

12-13 urterekin erdarako joera hartu zuten neskek, baina gero buelta eman zioten, euskararen aldeko herri mugimendua hasi zenean. Bilore lantegia ireki zutenean berak ere hantxe lanean hasi nahi zuen, baina amak ikasten jarraitzeko esan zion. Han zebiltzan neska askok erdaraz hitz egiteko ohitura hartu zuten.

142. Don Modesto parrokoaren eragina (ZDB-023/009)

Don Modesto parrokoak asko markatu zuen herria. Frankista zela dio eta igandeko sermoietan egundokoak esaten zituela abertzaleen eta "gorrien" kontra. Horren ondorioz, laiko eta ateo asko sortu ei ziren herrian.

143. Guraso abertzaleak, euskaldunak (ZDB-023/010)

Etxean abertzaleak ziren. Gurasoek argi zeukaten euskaldunak zirela eta ez espāñolak. Argiak itzalita entzuten zituzten irrati klandestinoak.

144. Gerra garaian errepresio handia herrian (ZDB-023/011)

Aitak Castellonen egin zuen soldaduska. Afrikan ere egon zen eta 20 arte zekien kontatzen arabieraz. Zaldibian errepresio handia egon zen gerra garaian. Hondasunen bahiketa ohikoa izan zen. Fusilatuak ere egon ziren.

145. Don Jexux apaiza, Don Modestoren justu kontrakoa (ZDB-023/012)

Aitak kontatzen zion gaztetan dantza taldean klandestinitatean entsegatzen zutela. Don Modestoren ondoren Don Jexux apaiza joan zen herrira, komunista. Hark ere bere marka utzi zuen. Gazte asko erakarri zituen. Antzerkia egiten zuten, mendira joan...

146. Erlijioak egindako kaltea (ZDB-023/013)

Amak ez zituen ulertzen beti elizan zebiltzan emakume batzuk, ateratakoan gaizki esaka eta epaitzen aritzen zirenak. Oiduiako aterpera joaten hasi ziren eta Don Modestok sermoian egundokoak esaten zituen beraiei buruz. Jendea epaitzeko giroa bultzatzen zuen erlijioak.

147. Amaren izaera (ZDB-023/014)

Ama feminista zela dio eta aitari eboluzionatzen lagundu ziola uste du. Besteek zer esango zuten ez zitzaion hainbeste inporta amari.

148. LKIn sartu zen (ZDB-023/016)

Konfrontazio politiko handiak egon ziren herrian, politika kontuengatik. LKIn sartu zen bera: troskista zen. Kartzelara eraman zuten, Martutenera. Herriko bi abertzale ere sartu zituzten eta haiei laguntzeko fondo bat sortu zuten herrian, baina beraientzat ez. Herrian errebeldia handia egon dela dio.

149. Bere bila joan zirenean, konplizitatea (ZDB-023/017)

Zergatik atxilotu zuten kontatzen du. Institutuan zebilen eta propaganda aparatuan zegoen. CAFen greba handiak izan ziren garai hartan eta beraiek ere manifestazioa egiten zuten. Txileko kolpea gogoratzen du... Polizia bere bila joan zenean, irakasle batek gezurra esan zien. Amak ere ezkutatu egin zuen vietnamita. Berak orduan ez zekien 1936ko gerran zenbat fusilatu zituzten.

150. Madrilen epaitua, artean adingabea zelarik (ZDB-023/018)

Sei hilabete egin zituen kartzelan. Adin txikikoa zen artean. Madrilen izan zen epaiketa. Ama bere defentsan atera zen beti. Amaren bizitza kontatzen du pixka bat eta haren izaera.

151. Amari errebeldea izatea tokatu zitzaion (ZDB-023/019)

Amaren izaerari buruz hitz egiten du. Anttoni Iztuetari errebelde izatea tokatu zitzaion eta berak asko miresten zuen. Hiru neska eta hiru mutil ziren; errebeldia puntu bat izan dute guztiek.

152. Madrileko epaiketa II (ZDB-023/020)

Madrileko epaiketa. Bi neska eta bi mutil ziren; kide bat asko torturatu zuten. Beraiek ez zituzten torturatu, baina gaizki tratatu bai. 'Vietnamita' libratu zutela dio, kopiak egiteko makina. Kopiak nola egiten zituzten azaltzen du.

153. Selektibitatea ez zuen egin nahi izan eta neskametzan hasi zen (ZDB-023/021)

Selektibitatearen kontra ere borrokatu zuen. Ez egitea erabaki zuen eta lanean hastera. Amari disgustua eman zion. Tolosara joan zen familia batera. Neskameen egoera ezagutu zuen hala: neska gazteak depresioak jota, interna etxeetan, kontraturik gabe...

154. Magisteritza, Dominikar Errepublikan (ZDB-023/022)

Dominikar Errepublikara joateko aukera sortu zitzaion. Irakasle titulua han atera zuen.

155. Zaldibiako ikastolaren sorrera; Dominikar Errepublikako esperientzia (ZDB-023/023)

Zaldibian etxebizitzetan ikastola jarri zuten eta mugimendu indartsua sortu zen. Irakasleetako bat Carmen Irastortza zen. Dominikar Errepublikara elkarrekin joan ziren; guztira 9 neska. Urtebeterako printzipioz, baina bi urte

azkenean. Familia aberatseko troskista bat ezagutu zuen eta kontraesana sortu zion horrek.

156. Magisteritza, Dominikar Errepublikan II (ZDB-023/025)

Dominikar Errepublikan hezkuntza aldetik hemen baino aurreratuago zeudela uste du. Santo Domingon egon ziren. Emakumearen egoerari buruz hitz egiten du eta hango familia ereduari buruz.

157. Emakumearen egoera Zaldibian (ZDB-023/026)

Emakumeen egoera Zaldibian. Gaztea zelarik, kuadrillan lehenengo bikoteak egiten hasi zirenean, jarrera batzuen kontra zegoen. Bera ez zen pintatzen, ez dotore janzten... oso kritikoa zen. Oso lotsatia zen. Orduko kontraesanak.

158. Matxismoa lehen eta orain (ZDB-023/027)

Matxismoa ageriago zegoen lehen. Txiste batzuekin barre egiten zuten... Kontakatilu fama emakumeek daukatela dio, baina mutilak ere ez ei dira motz geratzen. Festetan begirada lizunak, ipurdia ukitu... halakoak sarri gertatzen ziren.

159. Komentario arrazistak ohikoak (ZDB-023/028)

Komentario arrazistak sarri entzuten ditu herrian bertan eta uste du kosta egiten zaigula interbenitzea. Feminismoak ere ez duela hainbeste eboluzionatu dio.

160. Amak dantzarako astirik ez (ZDB-023/030)

Aita dantzaria zen, baina gurasoak ez ditu ikusi herriko festetan elkarrekin edo soltean dantzan. Amak ez zeukan horretarako astirik. Ezkondu zirenean, hiru egunerako Iruñeara joan ziren ezkonbidaian eta amari luze egin zitzaion.

161. Eskolako oroitzapenak (ZDB-023/032)

Eskolan hasi zenean erdaraz ez zekien eta sustoa hartu zuen. Maistra kopetiluna iruditu zitzaion, gainera. Neskak eta mutilak aparte, gimnasia ere desberdin. Irakasleak baserrikoak gutxietsi egiten zituen. Eraztunarekin kaskarrekoak ematen zituen batek. Parrokoaren familiakoek enkarguak eginarazten zizkieten eskolako umeei.

162. Ez da mezetara asko joandakoa (ZDB-023/033)

Denbora gutxian joan zen mezetara. Jaunartzea egin zuen, baina ez zuen presio handirik joateko. Amak irratian entzuten zuen meza, baina ez zen igandero joaten. Beste etxe batzuetan zorrotzagoak ziren. Kanpotik etorritako emakumeak ez ziren mezetara joaten, hiletetara bakarrik. Lutoa janzten zuten.

163. Legorretako ikastolan irakasle (ZDB-023/034)

Legorretako ikastolan hasi zen lanean. Urte dezente egin zituen han. Publifikatu egin zen gero eta eskola bakarra geratu zen. Euskaraz nola alfabetatu zen azaltzen du, bere kabuz. Asko irakurtzen zuen, hitz zerrendak egin... Ordiziako ikastolakoekin harremana zuten eta ikastaroak egiten zituzten.

164. Zaldibiako udal taldean: Kultura zinegotzi (ZDB-023/035)

Militantzia urteak: 80ko hamarkadan udal hauteskundeak hasi zirenean, 40 pertsona biltzen ziren herrian udal talde bat sortzeko. Bera independente moduan sartu zen. HB ilegalizatu zutenean, orduan barruan sartzea erabaki zuen, klase borroka ahaztu gabe. Yoyes hil zutenean bera zinegotzia zen, eta argi esan zuen bere ustez bizirik egon behar lukeela.

165. Udalean zegoela egindako aldaketak (ZDB-023/036)

Udaletxean koadroak kendu egin zituzten, gizonezko ilustreenak zirelako, eta iskanbila handia sortu zen horregatik. Ekitaldietan kutsu erlijiosoa kendu zuten.

166. Herriko kohesioa eta aniztasuna; eskolan duten proiektua (ZDB-023/037)

Zaldibian ezker abertzaleak herriari kohesio handia eman diola uste du. Herriko eskolan aniztasuna lantzeko duten proiektua aipatzen du. Hala ere, ez da erraza oraingo ratioekin eta baliabide urriekin. Ikasleen erdien gurasoek ez dakite euskaraz.

167. Guraso batzuk umeen euskara mailarekin arduratuta (ZDB-023/038)

Kanpotik etorritakoen seme-alabek kalean ere euskara ikasten dute. Hizkuntzaren kalitatearekin arduratuta daude guraso batzuek, eta normala iruditzen zaio. Sare sozialek ez dute laguntzen.

168. Globalizazioaren eragina herrian (ZDB-023/039)

Globalizazioaren eragina herrian: Internet bidez erostea Covid garaiko kontua zela uste zuen, baina ez. Kanpotik etorritakoek ez dute herriko dendetan erosten, garestixeagoa izaten delako. Denda batzuetan kubatarrak daude lanean, baina gehienek euskaraz hitz egiten dute.

169. Zaldibia herri itxia? (ZDB-023/040)

Beste herrietatik datozenek Zaldibia herri itxia dela esaten dute, baina berari ez zaio hala iruditzen. Legorretarekin egiten du konparaketa: Zaldibian kultur ekimen gehiago zeuden han baino, garai batean behintzat. Bertakoekin ezkonduakoei "eranskinak" esaten diete, eta haietako batzuek diote ez zaiela hain erraza egin herrian integratzea.

170. Migratzaileak Zaldibian (ZDB-023/041)

Kubatar familia bat ondo integratu dela kontatzen du, baina ez ziren zuzenean Kubatik etorri. Egoera asko aldatu da herrian: hauteskunde garaian, atez ate joan denean, kanpotar asko aurkitu ditu. Harrera egiten zaie etorkinei, Udaletik.

171. Familia eredu berriak I (ZDB-023/042)

Homosexualitatea, familia eredu berriak (bi ama)... motel ikusten du egoera herrian, etxean tokatu bitarte. Bera ezkondu gabe bizi izan da. Eskolan umeentzat naturala da, ez dago epairik, baina nagusien artean...

172. Familia eredu berriak II (ZDB-023/044)

Herrian ez dago normalizatuta homosexualitatea. Bide bakarra norberak bere bidea egitea da. Eskolan heziketa sexuala emateko kultura batzuek eragozpenak ipintzen dituzte. Inauterietan neskak mutilez eta mutilak neskaz janztea proposatu zuten, eta marrokiar familietako amak kexuka joan zitzaizkien. Integrismoa.

173. "Arkakuxoak" zaldibiarrak (ZDB-023/046)

Zaldibiarrak 'arkakuxoak' zergatik diren. Artzain asko zegoelako uste du izango dela. Berezi fama daukate inguru herrietan. Festetan jende asko joaten zen garai batean Zaldibiara. Ekintzaile asko dagoela herrian eta fama hori izan dutela dio.

174. Ataun-Zaldibia harremana (ZDB-023/048)

Ataunen eta Zaldibiaren arteko harremanak. Mendiz lotura handia zegoen garai batean. Herri oso luzea dela dio eta horrekin txisteak egin izan dituztela. Ataunen lizentziatu asko egon izan dela dio.

175. Mondeju txuriak eta mondeju-zopa (ZDB-023/049)

Mondeju txuria betidanik ezagutu du. Amak beti egiten zituen, festetarako. Terrazan ipintzen zituen zintzilik. Aitak partitzen zituen, motoan. Ama falta denetik ez dute etxean egin. Harategian erosten dituzte. Mondeju-zopa ere izaten da herriko tabernetan.

176. Ipuin gutxi etxean (ZDB-023/050)

Ez ditu ipuin eta kontu mitologiko asko entzun etxean. Kontu izugarri batzuk bai (ume baten hilketa). Zaldibiako himnoa sortu zuen Zaldibiako emakume batek.

177. 1646an herrian atxilotutako 10 emakumeak (ZDB-023/051)

Martxoaren 8rako 1646ko emakume batzuen epaiketari buruzko dokumentua atera zuten herrian. 10 emakume ezkongabe atxilotu zituzten; batek apaizarekin izan zituen bi ume. Don Modestori buruz esan dituztenak.

178. Nikaraguako emakume baten historia (ZDB-023/053)

Nikaraguako emakume baten historia kontatzen du, herrian bizi izan dena. Haurdun zegoela, gizonak alde egin zion. Bertako familia batek laguntza handia eman zion eta nola egin zuen aurrera.

179. Hika norekin hitz egiten duen (ZDB-023/055)

Hika senideekin eta lagun artean egiten du. Alabei zuka egiten die batez ere. Mutilen artean joera handiagoa dago hika egiteko nesken artean baino.

180. Ikasleei batzuetan hika (ZDB-023/056)

Irakasle moduan ikasleekin ere erabili du hitanoa. Mutilen artean ohitura handiagoa ikusi du hika egiten. Konfiantzaz hitz egin nahi zienean hika ateratzen zitzaion.

181. Hitanoaren egoera Zaldibian; eskolan erakutsi beharko litzateke (ZDB-023/057)

Herriko hitanoaren egoera: mutilek egiten dute gehiago. Hezkuntzan ere leku bat izan beharko lukeela uste du, baina dauden erronka guztiekin zaila ikusten du. Hika irakaslea aurkitzea ere igual ez litzateke erraza izango. Mutiko marokiar batzuek kalean hika ere ederki ikasi zutela dio.

182. Hitanoa galzorian nesken artean (ZDB-023/058)

Hitanoa nesken artean galzorian dagoela uste du. Nesken esku ikusten du hori iraultzea. Hitanoak ahalduz bat erakusten duela dio: bolumen altua... Neskak finagoa izan behar du gizartean duen rolean.

183. Mutilek noka egiteko zailtasunak (ZDB-023/060)

Berak ez du ahaleginik egin behar mutilei hika egiteko, baina gizonezko askok bai alderantziz, ez dakizkitelako nokako aditz formak. Hika kalean ikasitako mutil batek baserriko etxekoandreaki esan ziona: "Damian etxean al zegok?".

184. Hitanoaren doinua gustuko (ZDB-023/062)

Pena emango lioke hitanoa galduko balitz. Gustatu egiten zaio doinua.

185. Pentsio duinen alde lanean (ZDB-023/064)

Oraingo bere militantzia pentsiodunen aldekoa da. Bere amarekin asko akordutzen da. Alarguntzean erdira jaitea ez zaio justu iruditzen. Emakumeek egindako lanei balio ekonomikoa jartzen hasiko bagina...

186. Pentsio duinen alde lanean II (ZDB-023/066)

2020ko urtarrilaren 30eko greba egin zenean ekitaldi polita egin zuten Zaldibian, beste talde batzuekin elkartuta. Astelehenetan elkarretaratzea egiten dute Ordiziako plazan. Gaur egun borroka falta dela dio.

187. Pentsio duinen alde lanean III (ZDB-023/068)

Pentsionistak elkartzen direnean aniztasun handia dago eta alderdikierarik ez dute onartzen. Lelo bat ari da zabaltzen, oso arriskutsua dena bere ustez: 'denak berdina dira'. Gazteen ikuspegia.

188. Hitanoa bultzatzeko ekimenak ikastetxeetan (ZDB-027/006)

2022an Zaldibiako ikastetxean hitanoa bultzatzeko irakasle baten ekimena. Era berean, Ordiziako ikastolatik laguntza eskatu zioten Saroiri hitanoa ikasleekin lantzeko. Proiektua nola egin zuten kontatzen du. Hitanoz hitz egiterakoan generoa kontuan nola hartzeko, haurrei galdetzen diete nola nahi duten egin.

189. Proiektuak jarraipena izateko arazoak (ZDB-027/009)

Ikastetxeetan hitanoaren proiektua polita izan zen arren, ez du jarraipenerako erraztasunik ikusten, hitanoa bi pertsonen arteko elkarriketa delako. Ezin da taldean jorratu. Ikasgelaren ezaugarriak ere kontuan hartu behar dira.

190. Noiz hasten dira gazteak hika erabiltzen (ZDB-027/010)

Noka erabiltzen hasi zen kontzientzia puntu bat izan zuenean. Mutilen kasuan ezberdina da. Haurrek hitanoa gutxiagoa erabiltzen dute eta erabilera handitzen da 16-18 urte betetzen dituztenean. Arrazoiak zeintzuk diren ez daki. Bere adineko mutilak, umetan ere hika egiten zutela gogoratzen du (mutilen artean, ez neskei).

191. Hika norekin erabiltzen duen (ZDB-027/011)

Hitanoa pertsona gutxirekin erabiltzen du.: bi lankiderekin, herriko bizpahiru pertsonekin, lehengusu batzuekin... Herritik kanpo ez du egiten. Aloña, lehengusinarekin beti egiten du hika. Inoiz ez dio hika semeari egin, ez zaio ateratzen. Aitak eta aitonak egiten diote.

192. Arotz izatetik, ikus-entzunezkoak egitera (ZDB-027/015)

Arotzeria ikasi zuen Ordizian eta hamar urtez arotz bezala lanean aritu ondoren, ikus-entzunezko arloan dabil orain Aloña. Egin dituen dokumental batzuk aipatzen ditu.

193. Etorkinek eskolan integratzeko izan dituzten arazoak (ZDB-027/017)

Zaldibian, etorkinek eskolan integratzeko izan dituzten arazoez eta bertakoen jarrereaz. Eztabaida nagusia euskararen inguruan izan bazen ere, beste gai batzuetan ere egon dira tirabirak: LGTBI mugimendua, dantzak, berdintasunean... Uste dute etorkinei azaldu egin behar zaiela Zaldibia arnagunea dela eta herriaren parte garrantzitsua dela euskara.

194. Zaldibitarren ezaugarriak (ZDB-027/026)

Zaldibian borrokalarien fama dute eta herri-nortasun handia dute. Zaldibitarren ezaugarriak euskararekin oso lotuta daude.

195. Zaldibiako Jesus apaiza (ZDB-027/027)

Trantsizio garaian, udala osatzeko orduan egon ziren tirabirak, erregearen koadroa zela eta. Frankismo garaian Zaldibian ibili zen Jesus apaiza nor zen.

196. Zaldibia oso herri parte-hartzailea da; auzolana (ZDB-027/031)

Zaldibitarrek beti parte-hartzaileak izan dira. Elkarte eta ekintza ugari daude herrian. Kultur-arloan ekintza asko egiten dira, nahiz eta gero Aldunditik muga jarri. Zaldibian auzolana asko bultzatzen da, baina natural ateratzen zaien zerbait da.

197. Zaldibiako hitanoaren egoera (ZDB-027/035)

Zaldibiako hitanoaren egoera txarra da. Beste herri batzuekin alderatuta erabilera ona bada ere, ez da ondo egiten eta kalitatea asko galdu da. Noka gainera, galdu egin da.

198. Noka kontzienteki erabiltzen dute (ZDB-027/036)

Kontzienteki hasi ziren noka erabiltzen, emakumea izateagatik ez zutelako etxetik hitanoa jaso. Guraso eta adinekoei egitea. Noka ez dute etxean zuzenean jaso, baina etxeko emakumeen artean beti entzun dute.

199. Norekin erabiltzen duten hika (ZDB-027/037)

Mutilei hika egiterakoan ez du pentsatu behar, baina neskei egiterako orduan, bai. Bikotearekin, seme-alabekin eta familiako gehienekin egiten du hika Aloñak. Lagunen artean, mutil gehienekin egiten du hika baina neskekin ez horrenbeste. Alabarekin kontzienteki egin behar du, baina bikoteak ez dio alabari hika egiten. Kuadrila eta familia berdinean, batzuei zuka, besteei hika... Pentsatu gabe ateratzen zaie.

200. 16 urterekin hasi ziren hika erabiltzen (ZDB-027/038)

15-16 urterekin hasi ziren hitanoa erabiltzen modu kontziente batean. Lagun batekin hasi zen Aloña hika egiten eta orain zuka egiten dute.

201. Etxetik euskara jasotakoak; euskararen kalitatea (ZDB-027/040)

Txikitatik jaso dute ez bakarrik euskaraz hitz egitea, baizik eta nola egitea. Erabiltzen den euskararen kalitateari buruz. Etxean oso hiztunak dira.

202. Bikoteak beraien artean hika edo zuka? (ZDB-027/041)

Saroiaren gurasoak bikote izan aurretik hika egiten zioten elkarri, baina gero beti zuka. Aloñaren gurasoek ordea, hika egiten zioten elkarri, ama gaixotu zen arte. Orduan, zuka hasi ziren.

203. Elizarekiko harremana Zaldibian I (ZDB-027/044)

Belaunaldi batetik bestera, elizaren kontrako jarrera handia dago Zaldibian. Beraien gurasoen belaunaldiak eman zuen aldaketa eta jende asko dago bataiatu edo jaunartzea egin gabekoak.

204. Elizarekiko harremana Zaldibian II (ZDB-027/045)

Zaldibian egondako apaizei buruz. Jesus, Modesto, Emeterio... Emeterio gaiztoa zen eta bataiatu gabeko umeei infernura joango zirela esaten zien.

205. Emakumeek hika ez egitearen arrazoiak (ZDB-027/048)

Zaldibian, hitanoa ez dago baserriarekin lotuta. Garai bateko emakumeek hika baztertzearen arrazoiak.

206. Hitanoa, konfiantzazko trataera (ZDB-027/050)

Saroiaren aita bere bi osabei hika egiten zien baina hori beste familia batzuetan pentsaezina izan daiteke. Konfiantza kontu bat da.

207. Hitanoaren transmisioaren etena (ZDB-027/054)

Gurasoek ez zieten etxean hika egin. Zergatik izango ote zen pentsatzen dute.

208. Hitanoari buruzko pertzepzio ona (ZDB-027/055)

Hitanoaren gaineko pertzepzio ona da. Ez dute hitanoaren kontrako iruzkin negatiborik entzun, bai ordea baikorrak.

209. Seme-alabei eta haien lagunei hika egiten die (ZDB-027/056)

Aloñak hika gehiago erabiltzen du Saroik baino. Seme-alabekin eta haien lagunei ere egiten die hika, modu kontzientean.

210. Hitanoa beti azken mailan gelditzen da (ZDB-028/003)

Euskara ustez aberatsa duten herrietan, lehenengo euskarari eutsi behar zaio eta gero hitanoa bultzatu. Hika beti amaierarako gelditzen da.

211. Harreman homosexualen normalizazioa herrian (ZDB-028/005)

Hogeita zazpi daramatza beste emakume batekin ezkondata, biak zaldibitarak. Herrian beti izan dira bikote homosexual ofizial bakarra eta haurrak izan dituztenak. Ez dute inoiz arazorik izan eta beraientzat normalizatuta egon den arren, haiek baino lehenagoko homosexualak ez dira bertan bizi eta oso gutxi ikusten dira, ezkutuan egongo balira bezala.

212. Umetatik jakin du lesbiana dela (ZDB-028/006)

Ia umetatik jakin du lesbiana zela eta etxean ez zuen arazorik izan, bai ordea bikoteak. Bikotearen amari asko kostatu zitzaion alaba lesbiana zuela onartzea. Zaldibian ikusi duenagatik, gizonezko homosexualak gutxiago egon dira edo behintzat gutxiago bistaratu dira.

213. Zaldibian oso herrikoak dira eta kontrola dago (ZDB-028/008)

Zaldibian oso herrikoak dira eta lesbiana edo gay-a izanda, norbait ezagutzeko aukerak asko murrizten dira. Herrian besteekiko kontrol handia dagoela uste du. Herri txikiaren abantailak eta desabantailak, norberaren barruan ere daude.

214. Ez txertatzeagatik, herrian baztertuak (ZDB-028/010)

Pandemia garaian pasa du bizitzako infernu handiena herrian, txertatzea erabaki ez zuelako. Baztertuak izan ziren herri-mailan. Garai horretan, gizakiaren alde txarrena atera zen eta ETArek amaieratik egon den gizartearen bipolarismo handiena txertoaren kontuarekin eman zela uste du.

215. Aralarren pistak eraikitzearen kontrako mugimenduak (ZDB-028/013)

Aralarren pistak eraikitzearen kontrako mugimenduak daude Zaldibian eta Ataunen. Erasoak jasan dituzte pisten kontra egoteagatik. Politika ere aldatu egin da eta ezker-abertzaleak ekologismoa bere programatik kendu duela dio.

216. Kotxearen dependentzia handia Goierrin (ZDB-028/014)

Goierrin kotxearen erabilera oso haundia da eta oso zaila ikusten du erabilera gutxitzea. Hirietan edo herri handiagoetan, kotxerik gabe ere bizi daiteke,

baina Goierriko paisaia dela-eta, kotxearekiko dependentzia handia dago. Autobusa 10 minuturo egon ezker, kotxearen erabilera jeitsiko litzake.

217. Emakumeek gizonezkoei esaten diete zer egin etxean (ZDB-028/017)

Feminismoak aurrerapauso handiak eman dituen arren kontzeptu gisa, oraindik ere gizonezkoen atzetik ibiltzen gara. Lagunen artean ikusten duen eta harritzen dion gauza bat da, amek beti dakitela haurra non dagoen, nora joan behar den, zer erosi behar den... eta aitek orde, ez. Etxeko gauzei dagokienez, ez du uste bikote batek besteari esan behaar dionik zer egin behar duen, baizik eta bakoitzari atera behar zaion zerbait da.

218. Haurrentzat jostailu arrosak eta urdinak (ZDB-028/018)

Oraindik ere haurrei jostailu arrosak eta urdinak banatzeari buruz. Gauzak asko aldatu dira hamarkada batzuetatik gaur egunera eta emakumearen ahalduntzea ere eman da, baina barruan oraindik landu beharreko gaiak daudela uste du Alohak.

219. Moda kontuak (ZDB-028/019)

12 bat urtera arte, neskak eta mutilak nahiko berdin janzteko joera zuten. Baina gaur egun erroparekiko eta modarekiko joera handiegia dago. Emakumeengan askoz gehiago ikusten den joera bat da: pelukeriara joan, depilatuta egon, argala izan... Dirua.

220. Haurrak helduen janzkeran asko fijatzen dira (ZDB-028/021)

Haurrak asko fijatzen dira besteen janzkeraz. Alohak, bere alabaren eta kartzelan 21 urte eman duen lehengusinarekin arteko elkarriketa bat kontatzen du, bigarren honen janzteko moduari buruzkoa.

221. Herri txikietako kontuak; bakardadea (ZDB-028/026)

Bakardadeari buruzko gogoeta. Normalean jendeak ez ditu besteen gorabehera negatiboak jakin nahi. Gazteak zirenean, herriko gazte bat hil zen eta nahiz eta kolpe gogorra izan zen denentzat, tabua da gaur egun ere. Sentimenduei buruz hitz egingo balute, Zaldibia herri hobeagoa izango litzake.

222. Hodei Galarragaren heriotzaren ondorioak herrian (ZDB-028/030)

Hodei Galarraga zaldibitarren heriotzari buruzko gogoeta eta herriko jendearentzat zer suposatzen zuen.

223. Aiton-amonak zaharretxetan (ZDB-028/035)

Orain aitona-amonak ez dira etxeetan bizi, zaharretxetan egoten dira. Alabak, auzoko beste baserri bateko amona batekin izandako pasadizoa kontatzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com